

**LET'S GO%**

Jokatu garbi Don

**naiz:****EUSKAL HERRIA**

## La Oreja de Van Gogh taldeak irekiko du Astigarragako sagardotegien denboraldi berria

Urtarrilaren 16an abiaraziko du La Oreja de Van Gogh talde donostiarrek Astigarragako sagardotegietako denboraldia Sagardo Berriaren Egunaren baitan.

NAIZ.INFO | ASTIGARRAGA | 2013/01/07

Astigarragako Sagardoetxeak jakinarazi du aurtengoan La Oreja de Van Gogh musika taldeak egingo duela sagardotegi denboraldi berriko lehenengo 'txotx'a.

Herriko alkate Andoni Gartziak emango ditu ezagutzera aurtengo sagardoaren ezaugarri nagusienak Sagardoetxean 12.00etan abiatuko den ekitaldian.

Lehenengo sagardo dastaketa, ostera, Petritegi sagardotegian egingo du talde donostiarrek 'Gure Sagardo Berria' ahoskatu bezain laster.

© GARAINFO - Portuetxe 23 2.a 20018 Donostia, GIPUZKOA - Tel. 943 316999